

Heren bat gutxiago aurreikusi du Arabako Diputazioak euskararentzat

2014KO AURREKONTUEN BERRI eman du Arabako Foru Aldundiak, eta euskara bultzatzeko erabiliko duen diru zakua, 2013arekin alde-ratuta, heren bat gutxiago izatea nahi du PPK. 341.200 euro gutxiago erabiliko lituzke datorren urtean.

686.500 euro gordeko lituzke euskararentzat eta ia atal gehienetan kopuruak jaitsi egingo dira. Mantenduko denetariko bat kua-drilletako euskara teknikarien sarea finantzatzekoa izango da. Atal hau garrantzitsuenetakoa da. Ondokoek ere ez dute galerarik

izango: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, euskarazko argitalpenak eta Geu euskara elkarteak. Diputazioak jaitsiera nabarmenak egingo ditu euskara bultzatzeko jardueretan (%55 gutxiago) eta sentsibilizazioa bultzatzeko programan (%62,5).

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak heren bat gutxiago jasoko dute, 25.000 euro gutxiago alegia, eta Arabako Bertsozale Elkartek %37,5 gutxiago, hots, 6.000 euroko murrizketa.

2013an 2012ko kopuru bera erabili dute euskara sustatzeko.

Diru-laguntzak afixak euskaraz paratzeagatik

ZUBEROAKO HERRI ELKARGOAK hala erabaki du. Euskara gehiago erabil-tzea bultzatzeko diru-laguntzak eskainiko dizkie herriko festa batzordeei eta kultur elkartei. Talde horiek propagandarako afixak egiten dituztenean, osoki euskaraz edo elebidun egiten badituzte, Herri Elkargoak dena edo erdia ordainduko die.

Bahea

Maite Iturbe EITBko zuzendari nagusiak Berrian esanak:



EITB.COM

“Euskarazko komunikabideen aldeko apustu bat bultzatu behar du EITBk. Hortaz, euskara gero eta gehiago agertuko da komunikazio-hizkuntza gisa gaztelania duten komunikabideetan, baina modu oso natural batean. Konpromiso hori gauzatzeko programazio berriko ia hamar ordu gehiago egongo dira egunero ETB1en, ETB3 indartu egingo dugu haur eta gazteentzako kate modura, eta euskarazko programazio-tarte handiagoak egongo dira etorkizuneko ETBHDn. Kanaletan ikusle euskaldunak urtean %10 gehiago izatea nahi du EITBk, euskarazko edukien kontsumo meta-tuari dagokionez”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Diru publikoa zaintzea eta gardentasuna

EPSILONEN PORROTA “errudun” gisa izendatu du epai-leak joan den astean. Kudeatzaile nagusia, Joan Villadeprat administratzaile bakarra, erantzule egin du. Gasteizko epaitegi batek zorrek eragindako kaltetuei 900.000 euro ordaintzera zigortu du eta hiru urtez enpresari katalanak ezingo ditu besteren ondasunak administratu edo besteren ordezkari lanak egin. Enpresak 1 Formulan lehiatu nahi zuen eta Espainiako eta Gasteizko Gobernuaren diru-laguntzak jaso zituen, Ibarretxeren eta EAJren garaian. Hainbat aurrezki kutxek kredituak eman zizkion, zorra 37 milioi eurotik gorakoa zela ere. Egun hauetan jakin dugu Fagor Elektresnak kooperatibak milioika euroko laguntzak jaso zituela Lópezen eta Urkulluren Gobernu garaian, zorra 800 milioi eurotik gorakoa zenean. Ez dira laguntzak jaso eta porrot egin duten enpresa bakarrak. Hiriko, Jubernor eta abar, “ezkutatu” diren milaka milioi euro diru publikoaren izebergaren punta baino ez dira. Ardura politikorik ez al dago?

Horrek guztiak zalantzan jartzen ditu enpresa eta egitasmo batzuei erakundeek ematen dizkieten laguntzak. Nola liteke Ibarretxek plan estrategikoan Epsilon “egitasmo nazional” moduan hartzea, merkatuak ez bazuen onartzen? Nola uler daiteke erakunde publikoek horrenbeste diruz lagundu eta sustatutako Hiriko egitasmoa erortzea? Nola azaldu Fagorrek aurrerabiderik gabeko zorra bazuen berriki milioika eurotako laguntza publikoak lortzea? Diru publikoa gehiago zaindu beharko litzateke, gehiago begiratu zein egitasmo aurkezten diren eta aurrera segitzeko zenbaterainoko bermea duten. Bestalde, laguntzak gardentasunez azaldu behar dira. Diru publikoa ez da gobernuko alderdiarena, eta laguntxo-ei ematekoa. Herritarrei zerbitzatzeko da, enplegua sortzeko, mantentzeko, eta gizarte zerbitzuak hobetzeko.

Juan Mari Arregi

